

2002-11-03
kioskoa**Ekaitz Agirre****Euskara, inkestak eta politika**

Eusko Jaurlaritzako Lehendakari-tzak egin du euskararen inguruko inkesta bat. Inkesta horren arabera, EAEko herritarren %81ek uste dute euskara eta gaztelania maila berean hitz egin behar direla. Hori izan zen, behintzat, inkestaren berri eman zuten egunkari gehienek nabarmendu zuten datua. Ez denek, noski. **El Mundo**-k, esaterako, beste datu bati eman zion lehentasuna, eta «euskaldunen erdiak baino gehiago independentziaren aldekoak» direla azpimarratu zuen tituluan. Alegia, euskara eta independentzia *eskutik hartuta* daudela, gutxi gorabehera.

Eta hain datu *arriskutsuen* aurrean, ezin harritu euskara *oso begiko* ez dutenek bere horretan jarraitzea. **Diario de Navarra**-k esaterako, Miguel Sanzek euskararen inguruan darabilen politika eta Euskararen Kontseilua izan zituen hizpide ostiraleko editorialean. Euskararen Kontseiluaz honakoa zioen: «Onartu edo ez, Kontseilua ez da filologia departamentu bat, oinarri politikoa duen organoa baizik». Duen funtzioa ere *argitu* zuen **Diario de Navarra**-k: «Ez dago hor kontu dialektalez zorrotz aritzeko —gauza gutxi dira barregarriagoak gaiaz ezer ere ez dakiten politikari batzuen ahotik hegoaldeko goi-nafarreraz azterketak entzutea baino—, bestelako lan batzuk egiteko baizik». Eta euskararen inguruan Nafarroan bizi direnez honakoa: «Garai hauetan ergelkeria litzateke euskararen afera arazo soziolinguistikoko hutsa dela pentsatzea. Batzuek komunikaziorako tresna gisa edota altxor utziezintzat dute hizkuntza, beste batzuek euren eraikuntza nazionalaren oinarritzat». Ozenago esaterik badago, baina argiago? Nafarroako euskaldunek ezin besterik itxaron.

Egunkaria 3.698. zenbakia**Dhorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Igor Sota**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**id** Batzorde Parekidea. 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 I. ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**balkoia****Martxelo Otamendi****Beheranzkoa gorantz jarri**

Urte askotan denon ahotan egon da, baina kosta egin zaio azalera ateratzea. Halako beldur kolektiboa zegoen, aireraturaz gero okerreko ondorioak izango zituela, arerioak kalte egiteko erabiliko zuela, eta, igoyal, hobe zela isilpean eramatea. Baina azkenean atera da. Helduen euskalduntze-alfabetatze jarduna krisian dago, krisi larrian, eta zer edo zer egin beharra dago.

Bi hilabete daramatzagu batean eta bestean entzun eta irakurtzen sektore hori aktibitatea (matrikulazioa behera, euskaltegi batzuk itxi...) galtzen ari dela. Grafikoetan ikusi ditugun datuek ez dute dudarako aukerarik ematen. Arrazoi bat baino gehiago argudiatu dira ikasle jaitsiera azaltzeko: eskolaren eragina euskaldunak sortzeko orduan, gizartearen mentalitate aldaketa konpromiso luzeak ez hartzeko, euskara ikasteko presio falta, motibazioaren aldaketa, behar berriei egokitzeko zurruntasuna, ikasleak sortzeko taxuzko kanpaina sendorik eza... Seguru aski ez dago arrazoi bakar bat azken urteotako krisia ulertzeko, eta denek izango dute zerikusia, zuzena edo zeharkakoa, gertatzen ari den galera horretan.

Administrazioaren zeregina

Era berean pentsatu beharko genuke euskaltegiak jende asko joate hutsak ez dakarrela, derrigorrez, ondorio kalitatezko. Gogoratu besterik ez

ETORKIZUNA

Eskolak bere lana hobeto bete beharko du, baina ezin ditugu ahaztu 20 urtetik gorakoak

KANPAINAK

Zer lan egiten da herritar erdalduna euskara ikastera bultzatzeko?

dago duela bi hamarkada euskara ikastera hurbildutako askok zein erraz uzten zioten ikasteari klaseak hasi eta gutxira. Baina jende asko joateak badu gutxienez irakurketa on bat: herritar askoren hasierako asmoa eta jarrera euskara ikasteko. Asmo horren *kalitatean* zegoen orduan arazoa, baina orain baino askoz bitarteko ekonomiko, mediatiko eta propagandistiko gutxiagorekin askoz jende gehiago biltzeko gaitasuna egon zen.

Euskal Herriak dituen hiru administrazioetatik (Gasteiz, Iruñea eta Baiona-Paue-Paris) Jaurlaritza da, ez eginak ez egin, euskalduntze-alfabetatzearen alde egin duen bakarra; beste biek edo ez dute ia ezer egin edo aurkako lanean jardun dute. Baina urteak

dira Gasteizen «beheranzko joera» duen sektoretzat jo zutela helduen euskalduntzea eta alfabetatzea.

Halako «tematzen denarentzako zerbitzua jarriko dugu bakarrik» bat sumatu izan da azken urteotako jokabidean. Ikusi besterik ez dago hainbat ideia gizarteratzeko (drogak ez hartzea, birziklatzea, emakumeen berdintasun eskubidea, etxebizitza soziala, alkoholaren aurkakoa, etorkinen integrazioa...) horrenbeste kanpaina egiten dituen administrazioak zein ahalegin eskasa egiten duen herritarrak euskara ikastera bultzatzeko.

«Lan Onari» zigorra

Ez du ematen administrazio horren lehenetasunetan dagoenik helduak euskalduntzea. Aitor dezagun, emaitzak ikusita, etsigarria izan litekeela; baina beste horrenbeste gertatzen da auto-istriparekin, eta alor horretan administrazioak ez du amore ematen.

Bada beste datu bat, lehenagotik ezaguna zena, baina egunotako iritzietan behin baino gehiagotan nabarmendu dena. Zorioneko neurriraketaren ondorioz lanean ondo ari den euskaltegia zigortu egiten dute bere lana ondo egiteagatik; hau da, herritar asko euskalduntzeagatik.

Jaurlaritzaren «Lan Onari saria» jaso beharrean, ikuskatzailearen bisita zigortzailea jasotzen du. Anekdotikoa eman lezake, baina gorago aipatu dugun jokabide baten adierazle da.

martintxo